
“Parkea Musik Fest” Parke ekosistemako pertsonen talentu musikarekin itzuli da Euskadiko Parke Teknologikoaren Zamudio/Derio Campusera

Jaialdia uztailaren 2an, osteguna, izango da, 14:30etik aurrera, Zamudio/Derio Campusaren egoitzaren kanpoaldean.

“Taykus”, “El Mentón” eta “Bitter Bites” taldeen emanaldiak izango dira zozketak, deskontu bereziak eta futbolin txapelketa baten estreinaldia ere hartuko dituen jardunaldiaren protagonistak.

Euskadiko Parke Teknologikoko Zamudio/Derio Campusak Parkea Musik Fest-en beste edizio bat hartuko du ostegun honetan, uztailak 2, Parke ekosistema osatzen duten pertsonen talentu musikala aintzatesten duen eta oraingoan, kanpora aterako den jaialdia, esperientzia are irekiagoa eta parte-hartzaileagoa eskaintzeko.

BeParke Klubaren esparruan antolatutako ekitaldia, “Parkerako erronka bat” ekimenaren barruko ideia gisa sortu zen, eta musikaren, aisialdiaren eta kulturaren bidez Parke komunitatea indartzeko hitzordu gisa finkatu da, ingurune profesionaletik haratagoko topalekua sortuz.

Zuzeneko musika izango da berriro ere jaialdiaren ardatz nagusia, Euskadiko Parke Teknologikoko enpresetako profesionalek osatutako hiru proposamenekin. Kartela hauek osatuko dute: “Taykus” musika elektronikoko saioarekin (ITP Aero); “El Mentón” pop-rock taldea (Txanogorritxu Haurreskola); eta “Bitter Bites” rock klasikoko taldea (Zucchetti).

“El Mentón” taldearen kasuan, berezitasuna da musika-talde finkatu baten emanaldia eta Zamudio/Derio Campuseko ekosisteman negozio berriaren irekiera batzen dituela; izan ere, taldeko abeslaria, Gorka Álvarez, Parke Teknologikoan irailean irekiko den Txanogorritxu hartzaindegiko arduraduna da.

Bestalde, “Bitter Bites” bandan Begoña Cuetok hartzen du parte, enpresa-softwarean espezializatutako Zucchetti enpresako ATZ zerbitzuko teknikaria. Begoña bateriarekin hasi zen, baina gaur egun baxua jotzen du hiru urteko ibilbide musikala duen taldean. Azkenik, “Taykus” Ivan Lodeiro ITP Aeroko piezen ikuskatzailearen izen artistikoa da. Musika elektronikoa jartzen du eta bere musika ere ekoizten du.

Kontzertuez gain, bertaratzen direnek zuzeneko zozketak, deskontu bereziak eta, edizio honetako berrikuntza nagusi gisa, Parkea Musik Fest-en lehen futbolin txapelketa izango dute, Parke ekosistemako

kideen artean parte hartzea eta jai giroa sustatzeko pentsatutako jarduera.

Parkea Musik Fest musikaren esparrutik haratago doan ekimena bihurtu da, Euskadiko Parke Teknologikoko Campusetan lan egiten duten pertsonen arteko topagune gisa sendotzeko. Proposamenak harreman pertsonalak sustatzea, komunitatean sorkuntza bultzatzea eta aisialdirako eta kulturarako aukera berriak eskaintzea bilatzen du, ingurune desberdin eta sortzailean.

Sarrera doakoa eta interesa duten guztientzat irekia izango da.

PARKEA MUSIK FEST 2026

Data: 2026ko uztailak 2, osteguna

Ordua: 14:30etik aurrera

Tokia: Zamudio/Derio Campuseko egoitzaren (Itsasontzi eraikina) kanpoaldea
Euskadiko Parke Teknologikoa – Zamudio/Derio Campusa
Ibaizabal bidea, 101

Informazioa:

Euskadiko Parke Teknologikoa

Prentsa Saila

prentsa@parke.eus

T 94 403 95 00